

OROITZAPENEN NOSTALGIA

Doinua: Aita semeak tabernan daude

Txikitan “ama handitu nahi det”
genuen beti esaten
orain ordea denbora hoiek
ditugu faltan botatzen.
Ikastolan gabiltza lan ta lan
frogak daudela ta gainen
lehen berriz klasen ikasten genuen
zortzi gehi zortzi egiten.

Bostetan baloia hartu ta prest
lagunekin jolasteko
bazpare ziba patrikan gorde
berandugo ibiltzeko.
Ostiraletan paga eskuan
litxarrerik erosteko
beatzitan bueltan ziztu bizin
“Goazen” inoiz ez galtzeko.

Larunbat goizen “Chocapic”ak jan
gero partidua nonahi
nahiz eta kriston egurra jaso
amaieran beti alai.
Igandetan zinean koadrila
sarrera erosteko zai
filma ulertzen ez genuen arren
ondo pasatzen genuen bai.

Bukautakon segitun etxera
astelehena ez zan ta jai
“etxeko lanak nola dauzkazu?”
entzuten genion aitai.
Esnautakon ingo nitula ta
utikan etxekolanai
justifikazio gisa bota
“txikia naiz ta ez det nahi”

Messiren kromoa tokatzea
ametsik hoberena zan
albuma betetzea zan xede
kromo guztik izan zitzan.
Atzera begiratzen det ta esan
oso inuxente nintzan
zer emango nuke orain berriro
sei urte ditzadan izan.

“Bertsolari”